

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Ostirala, 2013ko ekainaren 14a. IX. urtea. 2.611. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Amaia Azkue eta Eneko Maior Tolosaldeko Mankomunitateko ordezkariak, atzo, agerraldian. A. IMAZ

Mankomunitateak udalei zerbitzua osotasunean ordaintzeko eskatu die

Tolosaldeko Mankomunitateak gardentasunez eta arduraz jokatu nahi du eta herriak «euren aukeren gainetik» bizi izan direla adierazi du; orain artean «ordaindu dutena ez dela erreala» izan esan du **3**

Gazte lokalak arautuko dituen udal ordenantza prestatu du Tolosako Udalak

Gazteek, bizilagunek eta lokalen jabeek adostu dute bizikidetza araudia; irailean onartuko da **2**

Bi greba deialdi egin dituzte sindikatuek metalgintzan

Datorren asterako, ELAk bost egunez eta LAB, CCOO eta UGTk hirutan deitu dituzte **7**

Nazioarteko artistak ari dira parte hartzen Beantatuz erakustaldian

Egunotan, zazpi mural margotuko dituzte Tolosako kaleetan, eta bihar gazteentzako pintura tailerra izango da **4**

Finalerdiak jokoan, Ogi Berri eta Berria pilota txapelketetan

Bihar jokatuko dute Ogi Berriko finalerdien bigarren jardunaldia, Tolosan; Zazpi Iturri Berriako finalerako sailkatzen saiatuko da **5**

Sanjoanetako Azoka Berezia izango da, bihar, Tolosan **4**

Fallopia japonica landarea mozten ari dira Ori eta Araxes ibaietan **6**



Motxilak **salgai 15 eurotan**
Koloreak: Berdea eta beltza

Eskuratzeko deitu
943-655 695
telefono zenbakira
edo pasa HITZAko egoitzatik.
(Araba etorb. 5 behea - Tolosa)

Gazte lokalen ordenantza irailean onartuko du Tolosako Udalak

Gazteek, bizilagunek eta lokalen jabeek adostu dute bizikidetzara araudia, hiru hausnarketa saiotan

Itzea Urkizu

Tolosako Udalak datorren irailean onartuko du, aurreikuspenen arabera, Gazte Lokalen Inguruko Udal Ordenantza. Azken hilabeteotan burutu duten parte hartze prozesu baten ondorio izango da hau; gazteek, bizilagunek eta lokaleko jabeek elkarrekin hausnartu eta adostu dituzte, lokalen fenomeno sozial hau bizikidetzaz arautzeko puntuak.

Udalak, orain arte arautu gabe egon den jarduera hau «herriko fenomeno garrantzitsua» dela uste du, eta horregatik, gazte lokalen elkarbizitza protokoloa osatzea izan du helburu, hasieratik. Bide honetan, beraz, auzi honetan, modu batean edo bestean parte hartzen duten herritar guztiak bildu nahi izan dute, hausnarketaren bidean. Egindako saioetan zehar adostasunetara iritsi dira, eta horrela, hilabete gutxi barru sortuko dute ordenantza.

Adostearen bizikidetzara

Protokoloa osatzeko hiru saio egin dituzte guztira; aurkezpen bilera bat egin zuten lehenik, eta horren ondoren, bederatzik lokaletak ordezkarik parte hartu dute. Batz bestea, 25 herritar aritu dira prozesuko saio bakoitzean.

Besteak beste hiru puntu nagusi jorratu dituzte hausnartze saio



Bilera bakoitzean, batz bestea, 25 lagun elkartu dira. HITZA

hauetan. Batetik, Tolosan dauden gazte lokalen ezaugarriak bildu dituzte, hauek aztertu eta kokatzeko.

Honen ondoren, gazte lokalek herritarren sortu duten fenomeno sozial honen auto diagnostia ere burutu dute; puntu honetan, gaieran inguruan dauden hainbat ikuspegi kontuan izan dituzte diagnostia osatzeko.

Azkenik, arduradunek azaldu dutenez, «beste zenbait gauzarako ere balio izan du prozesuak». Horrela, lokalen erabiltzaileek dituzten premiak identifikatu ahal izan dituzte, eta lokaleko jabeak euren ere araudi eta protokoloan inplikatzeko lortu dute. Hala ere, Tolosako Udalaren eta herriko gazteen arteko harremanak sendotzeko bidea izan da proze-

sua, eta lokaleko erabiltzaileek eta bizilagunen arteko elkarbizitza hobetzeko moduak ere aurkitu dituzte.

Aipatzeko da, Tolosako Udalak eskerrak eman nahi izan dizkiela araudia sortzeko prozesuan parte

Hausnarketa saioetan gazteek, lokaleko jabeek eta bizilagunek parte hartu dute

Bileretan elkartutako 25 herritarrek egoeraren auto diagnostia egin dute

hartu duten herritar guztiei, «erakutsitako jarrera baikorragatik, seriotasunagatik, eta lanerako gogoagatik».

Parte hartze prozesu honek, beraz, irailean plazaratuko den emaitza osatzeko oinarriak jarri ditu, eta orduan onartuko dute Gazte Lokalen Inguruko Udal Ordenantza.

→ Laburrak

Ituriza elkarteak mus txapelketako izen ematea

GIZARTEA » Erretirodunen Ituriza elkarteak, bosgarrenez, San Joan mus txapelketa azkarrak antolatu du, lau eta zortzi erregetara. Izena emateko azken eguna ekainaren 19a izango da, eta elkartearen bulegoan egin beharko da, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 12:00etara. Eskualdeko herritarrek parte hartu ahal izango dute, eta zozketa hilaren 20an izango da. Txapelketa, berriz, hilaren 21ean hasiko da.

Blok arte eskolako kideen erakusketa Topic zentroan

KULTURA » Ekainaren 18ra bitarte, Topic zentroan ikusgai izango dira, Blok arte eskolako ikasleek urte osoan zehar egindako lanak. Hainbat tekniken bidez egindako lanak ikusgai izango dira, eta tartean, Sanjoanetako kartel lehiaketako irabazleak eta hainbat finalisten lanak ere badira. Sarrera doakoa da, eta ordutegia, berriz, 11:00etatik 13:00era, eta 16:00etatik 19:00etara bitartekoa da.

Hodeiartzen 30. urtemuga ospatzeko kontzertua

KULTURA » Tolosako Hodeiartzen abesbatzak 30 urte bete ditu, eta gaur eskainiko duten kontzertua ospakizun nabarmenetakoa izango da. Ordiziako Oroith abesbatzarekin batera, Santa Klaran izango da emanaldia, 20:00etatik aurrera. Monteverdiren *Sestina*, Zefiro torna eta *Cantate domino* interpretatuko dituzte, alde batetik, eta Rutter-en *Requiem*, bestetik.

Izen ematea, Usabalgoko udako ikastaroetako

KIROLA » Usabal kirodegiko udako ikastaroen eskaintza zabalean izena eman daiteke jada. Uztailaren 1ean hasiko dira lehen ikastaroak.

Igandean inauguratuko dute, ofizialki, Inpernu kaleko batzoki berria

Eguerdian ekitaldi politikoa egingo dute Zerkausan, Joseba Egibar eta Mari Eugenia Arrizabalagaren eskutik

I. Urkizu

Badira jada hilabete batzuk, Tolosako EAJko kideak batzoki berria joan zirenez geroztik. Inaugurazio ofiziala, ordea, igande honetan ospatuko dute, egun osoko egitarauarekin.

Zerkausan hasiko dute eguna jeltzale tolosarrek, 12:00etan, eta ekitaldi politikoa izango da bertan; Maria Eugenia Arrizabalaga eta Joseba Egibar GBBko lehenakaria ariko dira, bertan, hizlari lanetan.

Jarraian poteoa egingo dute herritarren barrena, 14:00etan bazkalaz joateko. Bazkal aurretik, ordea, irekiera ofiziala burutuko dute, ikurrina igoz.

• tolosa@hitza.info

PSE-EEK udal eraikinen erabilera arautzea eskatu du Tolosan

Laskorain ikastolaren ikasturte amaierako festan, kiroldegia erabilera «kezagarria» izan dela diote

I. Urkizu

Tolosako PSE-EEK «kezka» azaldu du, udal eraikinen uzteko moduari dagokionez: «Udal gobernuaren kontrolik gabe aritu zen, Laskorain ikastolako jairako Usabal kiroldegia uzterakoan».

Batetik, Ibai Iriarte alkatearen jarrera salatzen dute, «dekretu bidez gobernatzeko duen gogoagatik». Beren arabera, Laskoraingo jaiaren bezperan, alkateak dekretu bidez utzi zion Usabal ikastolari, «eta kiroldegiko erabiltzaileei jakinarazi gabe egin zuen guztia».

Horrela, beraz, eta «jai horretan jende kopuruaren eta segurtasunaren kontrolik izan ezenez», PSE-EEK udal eraikinen uztea arautzea eskatu du, «hauek alkatearen nahierara erabil ez daitezkeen».

www.inmosalbide.com



Aia. Baserrira berritu berria. 125m2-ko bi solairu ditu. 25 m2-ko terraza. Terrenoa, 110.000m2. 50.000.000 pezeta.

Aizarnazabal. 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 24.500.000 pezeta.

Bergara. Askarruntz auzoa. Guztiz berritua: bi logela, diseinuzko sukaldea, berokuntza sistema gasarekin. 150.000euro!.

Donostia. Amara-Amezketakalea 3 logela, 2 bainugela eta terraza. Igogailua eta gasa. Zazpigarren solairua. Izkina. Ezin hobea. 59.898.960 pezeta.

Iraeta. Etxe berria. 2 logela, terraza eta lorategia. Garaje handia. Komunitateko igerilekua. Prezio berria: 35.000.000 pezeta.

Zarautz. Azken Portu. 92m2 ditu. 4 logela, terraza, trastelekua eta igogailua. Erreforma behar du. Prezio berria: 54.000.000 pezeta.

Zarautz. SALBIDE. 3 logela, 2 bainugela, terraza, trastelekua eta garaje itxia. Oso egoera onean. 75.000.000 pezeta.

Zarautz. Itxasmendi. 3 logela eta 2 bainugela. Erreforma behar du. 41.000.000 pezeta.

Bizkaia kalea, 6 · 20800 Zarautz · Tel.: 943-01 07 00 · Mug.: 665-71 85 96



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

«Eskualdeko herriak euren aukeren gainera bizi izan dira»

Tolosaldeko Mankomunitateak hartutako bidea eraginkorra eta ekonomikoa dela dio

Asier Imaz

Udalek jasotzen duten zerbitzua bere osotasunean ordain dezatela nahi du eskualdeko hondakinen mankomunitateak, Eneko Maioz eta Amaia Azkuek argitu dute-nez. Tolosaldeko Mankomunitateko bi ordezkariak «orain arte gestio desegokia» egin dela azaldu dute, eta horrek, bere ondorioak dituela: «Urte askoan zehar ez dira aplikatu igo beharreko kostuak, hala nola, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketari dagozkionak, eta beraz, orain hori ere egin beharra dago».

Eneko Maioz hondakinen mankomunitateko ordezkariak esan duenez, «igoera hau ez da mankomunitatearen gastuak igo direlako, edo bestelako arrazoiengatik. Herriek orain arte ordaindu dutena ez da erreala izan, eta herriak euren posibilitateen gainera bizi izan dira». Erabaki horiek man-

komunitatean eragin zuzena izan dutela azaldu du Maiozek, «soberakineta eta aurrekontuetan bezala».

Orearraren esanetan, 2009az geroztik, soberakinetatik ordaindu da herriek mankomunitateari eman beharrekoaren zati bat, erakundearen aurrekontua igo arren, herriek ordaindu beharreko kuota ez delako igo. Eneko Maiozek argi utzi nahi izan du, soberakina inbertsioak egiteko dela, eta ez herrien kuotak or-



Herriarrek ahalik eta gastu gutxien asumitzea lortu behar dugu guztion ahaleginarekin»

ENEKO MAIOZ
Tolosaldeko Mankomunitateko ordezkaria

daintzeko, «hori ez baita gestio egokia; herriek asumitutako gastua baino zerbitzu garestiagoa jasotzen dute».

Bidegoian izan ezik, eskualdeko gainontzeko udalak Tolosaldeko Mankomunitatean daude, Andoingoarekin batera. Amaia Azkueren eta Eneko Maiozen



Amaia Azkue eta Eneko Maioz Tolosaldeko Mankomunitateko ordezkariak, atzo, prentsaurerakoan. A. IMAZ

esanetan, erakunde autofinantziatua izan behar du Tolosaldeko Mankomunitateak, eta helburu horrekin, «herriei orain esfortzu hau eskatzen zaie, kudeaketa desegoki hau errotik aldatzeko».

«Bada beste aukera bat»

Tolosaldeko Mankomunitateko ordezkariak, erakundeak berak hartutako bidea aldarrikatu dute, alternatiba badela azaltzeko: «Horrela adierazita, udalei euren kostuak igoko zaizkiela esaten ari garela badirudi ere, ez dauka horrela izan beharrik. Izan ere, mankomunitateak hartu duen bideak, batetik, organikoa ahal den neurrian herrietan kudeatuz, eta bestetik, gaika ongi sailkatzea lortuz, birziklatze datuak biderkatuz, orain arteko sistema baina jasagarriago eta merkeagoa izatea ekarriko baitu».

Herriarrek ahalik eta gastu gutxien asumitzea lortu behar dela gaineratu du Maiozek, eta hori, «guztion ahaleginarekin» lortu daitekeela nabarmendu du.

Konpostagailuen eta hondakinen gaikako bilketaren bidea eraginkorra izateaz gain, ekonomikoki «bideragarria» dela esan du Amaia Azkue mankomunitateko ordezkariak: «Hondakinen sistemen gainera kokatzen gara, helburua, ahalik eta gutxien sortu, berrerabili eta ahal den guztia birziklatzea da, horrek kudeaketa kostuetan zuzeneko eragina duelako».

Bilketa sistemaren inguruan, «herrien izaeraren arabera», eredu bat edo bestea eramango dutela aurrera esan du Amaia Azkue.

Hondakinen mankomunitatearen helburua Tolosaldea zero za-

bor eskualdea izatea da, eta horren gakoa, ahalik eta zabor gutxien sortzean dagoela azaldu dute Maiozek eta Azkuek: «Helburua, zabortegetara ahalik eta hondakin gutxien eramatea da, eta horretarako, hondakinak ongi sailkatzea da oinarria. Horrela, egungo ereduak mantentzen dituen zabortegetatik urrun egongo den eskenatokian kokatuz».

Mankomunitateko kontuak, «orain arte ez bezala», garrantzitsuak eta arduraz eramateko asmoa agertu dute erakunde horretako ordezkariak: «Herriarrei konpromisoa eskatzen zaie aldi oro, hondakinen kudeaketan eurrak direlako subjektu garrantzitsuenak, baina aldi berean, Tolosaldeak, herriek eta norbanakoei, ahalegina guztioi egiten ari garela ikusi behar dute».

Errauste plantaren aurkako manifestaziora joatea eskatu dute

Zero zabor taldeak «ausardiaz eta arduraz» jokatu duten arduradun politikoak zoriondu nahi izan ditu

A. Imaz

Tolosaldeko Zero Zabor taldeak bat egin du *Birziklatzeari bai! Errausketarik ez! Ez hemen, ez inon!* leloarekin larunbatean Donostian egingo den manifestazioarekin. Mobilizazioa 17:30ean aterako da Boulebarretik, eta eskualdeko herriarrek bertara gonbidatu dituzte.

Bestalde, Ibarrako Zero Zabor taldeak, Gipuzkoakoak argitaratu duen oharra zabaltu du. Alde batetik, «Gipuzkoak presio politi-

ko elektoralisten eta elite baten interes ekonomiko biktima izaten» ezin duela segi diote, eta ausardiaz eta arduraz jokatu duten politikoak zoriondu dituzte. Bestetik, gogor kritikatzeko da atez atekoa jarri ez, eta «kea saltzen» ari omen diren politikoen jarrera: «Kezkagarria da zenbait herriarrek politikariek irtenbideari muzin nola egiten dioten ikustea. %60-80 gaika biltzea adostu, eta akordioan zehaztutako gauza bakarra, helburu hori erdiestea bermatzen duela erakutsi duen bilketa sistema bakarra baztertea izan baita». Zero zabor norabidean «pauso okerrak» ematen dituztenak salatzen jarraituko dutela azaldu dute zero zabor taldeak. Azkenik, atez atekoa, eraginkorra, eroso, garbia eta merkeagoa dela aldarrikatu dute.

Gutuna

MunduMob ekimenetik, guztioi eskerrak

- Bertsoen egilea:

Beñat Elosegi.

- Doinua: Itsasoari begira.

Gizateriak beregan dauzka hainbat portaera kaiku, handi uste ta harrokeriaz natura nahi du garaitu. Gauzak horrela kontzientzia inolaz ezin lasaitu ta MunduMob-ak esandakoaz gu ohar tarazten gaitu, kutsatzen duen pertsonak bere burua kutsatzen baitu.

Zer aldatua badago eta iritsi zaigu ordua, haundikeriak alde batera ezin da galdu burua. Behingoz bermatu beharra dago etorkizun segurua ta bizileku jasagarria denez gure helburua, apaltasunez eman dezagun jaso nahi dugun mundua.

Parte hartzeko dei egin zuten dantzan eskuin eta ezker eta jendeak erantzun zuen herrian bazterrik bazter, atxikimendu ugari jasoz zenbatzen gintezke asper. Euria erruz arituz ere ez ginen kokildu laster zuek guztioi zorion hutsa ta bihotzez mila esker.

■ Tolosaldeko Zero Zabor talde guztien izenez.

↓ Iragarki laburrak

LAN BILA

Etxeko lanetarako. Goizetan, etxeko lanak egin edo haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. Interesa duen edonork, dei dezala 943 69 68

82 edo 606 52 19 92 telefono zenbakietara.

ALOKAIRUAN

Etxea Peñiscolan. Peñismar, 2 helbidean, etxea alokairuan, 5-6 laguntzat. Itsas ertzetik 100

metrorako, eta aire egokitua nahiz txirristadun igerilekua ditu. Deitu: 690 06 76 45.

Etxebizitza Iruran. 80 metro karatu eta 2 logela dituen etxebizitza alokagai dugu Iruran. Interesatuek, deitu 636 53 00 00ra.

Cabacasen dokumentala izango da gaur ikusgai

I. Terradillos Tolosa

Iñigo Cabacasen heriotzaren inguruan egindako *Iñigo Cabacas Cronica de una herida abierta* dokumentala izango da ikusgai, gaur, 20:00etan, Tolosako Kultur Etxean. Cabacasen lagunek bultzatutako ekimena da.

Ertzaintzak botatako gomazko pilota batek buruan jota larri zauritu zuen Cabacas iazko apirila-

ren 5ean, eta lau egun geroago hil zen. Bere hilketak erreakzio zabalera eragin du gizartearen, eta polizia-aren gehiegikeriari buruzko kezka areagotu, izan ere, Cabacas hil zuen polizia-karga egitean kalean ez zen istilurik. Gertakariak argitzeke Eusko Jaurlaritzatik jarritako oztopoak eta zenbait ordezkari politikoren elkartasun eza salatu dituzte familiak, adiskideek eta beste zenbait sektorek.

→ **Laburrak**

Lan poltsa ireki du Ibarrako Udalak

IBARRA > Ibarrako Udalak lan poltsa bat sortuko du lehiaketa-oposizio bidez, udaleko obra lan-taldearen sortzen diren beharrei erantzuteko. Eskerak aurkezteko epea, hilaren 20a artekoa da, eta udaletxeko erregistro bulegoan egin behar da.

Herrigintza elkarteraren ez ohiko batzarra, gaur

IKAZTEGIETA > Ikaztegietakoa Herrigintza elkarteraren ez ohiko batzarra izango da gaur, 21:00etan hasita. Ondorengo gaien inguruan eztabaidatuko dute: garbitzailea, ontzi garbigailua, ur berogailua eta biltegi berria.

Azkueko garajeak alokairuan jarriko dituzte

IBARRA > Udalak bere jabetza-koak diren garaje batzuk alokairuan jarriko ditu. Hain zuzen ere, Azkueko 3, 4 eta 5 zenbakietakoal izango dira, bi urterako eta hilean 60 euro ordainduta. Ekainaren 17ra arte eman daiteke izena, eta zozketa ekainaren 18an egingo dute, 19:00etan, udaletxean.

Gimnastika erritmikoaren jaialdia, gaur, Ibarra

IBARRA > Belabieta Gimnastika Erritmiko Taldearen ikasturte bukaerako jaialdia izango da, gaur, 17:30etik aurrera, Belabieta kiroldegian. Bestalde, taldekideek berriki izan dira Gas-teizen izan den Euskadiko Txapelketan, eta emaitza onak lortu dituzte. Nabarmenezkoa da jubenetan Maider Zabalak eta taldeko seniorretan lortu dituzten bigarren postuak.

Beantatuz graffiti eta mural erakustaldian zortzi artista gonbidatu izango dira



Lehenengo urteko Beantatuz graffiti eta mural erakustaldiko une bat. I. TERRADILLOS

Nazioarte mailako artistak izango dira Tolosako kaleetan muralak margotzen; tailer bat ere izango da

Eneritz Maiz Tolosa

Atzotik hasi eta hilaren 18ra bitartean izango da Beantatuz 2013 grafiti eta mural erakustaldia. GKO Gallery-ak antolatzen du Tolosako Udalaren laguntzarekin. Urteetan zehar Tolosako grafiti erakusketa izan dena, 2010. urteaz geroztik Beantatuz izenpean aurkeztzen da.

Erakustaldia, formatu handiko muraletara bideratzen da, eta atzerriko zein gertuko artistekin kolaboratzen dute. Aurten, zortzi artista gonbidatu dituzte Tolosara, Above, Hyuro, Pau Quintana-Jornet, Txori-a, Inwoko, Ruina, Kidchalao eta Chylo, hain zuzen ere. Euskal Herriko artistez gain, Argentina, Txile, Espainia edota Californiatik etorritakoak izango dira.

Zazpi artistek mural bana margotuko dute Tolosako kaleetan zehar, eta, aldiz, Inwoko artistak, gazteentzat bideratutako pintura tailer bat emango du bihar, Trianguloa plazan. Beraz, Tolosako kaleak pintura usaina izango dute.

Antolatzaileek, urtean zehar, kale artisten jarraipena gauzatzen dute, eta Beantatuz jaialdira ahalik eta gonbidatu gehienekar-tzen saiatzen dira.

Mundu mailan dagoen mugimenduaren aurkezpen txiki bat egitea izan ohi dute helburu. Egun, mural erakustaldiak mundu osoko hiri ezberdinetara zabaldu dira eta honek artista ezberdinen mugimendua ahalbidetzen du, herrialde ezberdinak ezagutu eta bizipenak trukatzeko parada egokia sortuz.

Beantatuz erakustaldiari esker, Tolosako kaleak horren lekuko izango dira.

● tolosa@hitza.info



Euskal Herriko ekoizleen postuak izango dira Sanjoanetako Azokan

Bihar 30 postutik gora izango dira Trianguloa plazan; Basatxerriren pintxoak eta sagardoa dastatu ahaliko da

E. Maiz Tolosa

Ate joka datoz Tolosako San Joan jaia, eta urtero bezala, azoka berezia izango da, bihar, hilak 15. Aurtengo Sanjoanetako Azoka Berezian, Euskal Herriko hainbat eskualdetako ekoizleen produktuak ezagutarazi nahi dira. Kasu honetan, Lur Lan elkarteraren laguntza izan du Tolosako Udalak.

Hogeita hamar postutik gora jarriko dituzte Trianguloa plazan, goiz guztian zehar. Aukera zabala eskainiko da: barazkiak, eztiak, esnekiak, txerrikiak, ogia,



Iazko azoka berezian, jende asko izan zen. R. CALVO

gazta, pastak, ahatekiak, merme-lada, sagardoa, keetuak, txokolatea, likoreak...

Dastatzea, azalpenekin

Azoka bereziko postuez gain, ordea, goizean zehar Basatxerri eskainitako pintxoak eta eskualdeko sagardogileen sagardoa dastatu ahal izango da Trianguloan bertan. Salmenta postuez gain, sagardo dastatze komentatua egingo da, 12:30ean. Horretarako,

aldeaz aurretik, izena eman behar da Tolosaldea Tour-eko bulegoan edota egunean bertan Trianguloan. Bi euroren truke honako sagardogileen sagardoa probatzeko aukera izango da: Isastegi, Eguzkitza, Zabala, Begiristain eta Astiazaran. Dastatze komentatua Mikel Garaizabal adituak egingo du.

Honez gain, haurrentzako ere gune berezia egongo da txirrista eta guzti.

Pilota txapelketak, puri-purian

Ogi Berri Txapelketako eta Berria Txapelketako finalerdiak, jokoan; Herriartekoan, berriz, final-laurdenak

Imanol Garcia Landa

Pilota txapelketak pixkana finalerdiak iristen ari dira, eta horren adibide dira asteburuan jokatu diren bi finalerdiak. Batetik, Ogi Berri Txapelketaren finalerdiak bigarren jardunaldia jokatu da Tolosako Beotibar frontoian. Bestetik, Berria Txapelketaren finalerdiak jokatu du Amezketa-k Zapiti Iturri taldeak

Migel Soroaren oroimenezko I. Ogi Berri Txapelketaren finalerdiak bihar, larunbata, jokatu dira, 17:00etan hasita. Ohi bezala, kalitate handiko partidak ikusi ahal dira. Lehenengo partidaren, etorkizuneko mailan, Dario-Sarasa eta Elordi-Erasun ariko dira. Bigarrenengoan, elite mailan, Artola-Tolosa eta Agirre-Telletxea nor baino nor ariko dira. Hirugarrenengoan, kadete mailan, Peña-Mendia eta Errandonea-Etxeberria ariko dira elkarren aurka.

Zapiti Iturri elkartek nor-gehiegokoa zaila izango du, igan-



Tolosa eta Artola (gorriz), Telletxea (urdinez) eta Agirren aurka ariko dira, Ogi Berri Txapelketan, bihar. i.e.l.

dean, Zestoan, 17:00etan, Huarte taldearen kontra jokatu behar duen Berria Pilota Txapelketan. Amezketa taldeko sei pilotarietarik bakarra izango da titular moduan jokatu ohi duena, hau da, kadete mailako Erauskin. Beste bostak, zenbait txapelketa edo osasun arazo direla medio, ezingo dute igandean parte hartu. Hala, kadete mailan Iturbe-Erauskin ariko dira; jubenil mailan, Zubiria-Alberdi; eta nagusietan, Apezetxea-Santxez.

Xalton Zabala Zapiti Iturri taldeko arduradunak azaldu due-

nez, finalerdia irabaztea oso zaila izango dute. Txapelketa aurkeztu zenean, garai honetan izango ziren arazoak azaldu zituela gogora ekarri ditu Zabalak: «Herriartekoa, Mallabiakoa eta Migel Soroaren oroimenezkoa jokatzeko ari dira San Joan jaiei inguruan. Pilotariak ezin dute denetan parte hartu».

Herriartekoan, itzulerakoak

Herriarteko Pilota Txapelketaren final-laurdenak daude jokatu eskuzko modalitatean. Asteburuan itzulerakoak jokatu dira.

Bidegoianek Astigarragaren aurka gaur jokatu du, etxean, 19:30etan hasita. Tolosak Hernaniren aurka jokatu du igandean, kanpoan, 10:45an hasita. Zizurkile ere igandean jokatu du, Oartzunen aurka, kanpoan, 16:30etan hasita.

Udaberri Txapelketa

Bestalde, Udaberri txapelketan, Zizurkilen bi partidak izango dira jokoan, gaur, 19:00etan hasita. Ikaztegiaren ere gaur jokatu dira txapelketa horretako hiru partidak, 19:30etan hasita.

San Joan jaiei loturiko hainbat txapelketa jokatu dira asteburuan

I. Garcia Landa Tolosa

Kirol jarduerak ugari izango dira asteburuan Tolosan, gehienak San Joan jaiekin loturaren bat duten txapelketak. Usabal kiroldegian, esaterako, bi lehiaketa jokatu dira, eta biak bihar izango dira: eskubaloiko San Joan Saria eta igeriketako San Joan Saria. Azken horrek 09:30etan hasi eta 13:00ak arte iraungo du.

Eskubaloi txapelketari dagokionez, egun osoan zehar jokatu da. Zortzi talde lehiatuko dira: Elgoibar, Usurbil, Ordizia, Egia, Huarte, Zarautz, Loiola eta Tolosa. Lau taldez osatutako bi multzo egin dituzte eta multzo bakoitzean denek denak aurka jokatu dute. Partidak 10:00etan hasiko dira eta goiz osoan jokatu dute. 16:00etan finalerdiak jokatu dira, multzo bakoitzeko lehen sailkatua beste multzoko bigarren sailkatuaren aurka. Finala 18:30etan izango da.

Usabal kiroldegian ere, futbol eskolako saioa izango da, igandean, 10:00etatik 13:00etara.

TAKE antolatutako 3x3 Street Basket San Joan Saria bihar jokatu da. 09:00etatik 13:00etara, alebin eta infantil mailakoak Gernikako Arbolan ariko dira, eta 15:30etik 21:00etara, junior eta senior mailakoak San Prantzisko etorbidean.

Tolosa Kup txapelketako partidak ere jokatu dira. Gaur, 18:00etan hasita, lau partidak ikus-teko aukera izango da Eskolapiotetan. Txoko 33 eta Litaraafu, 30 Xentimo eta Bajalis, The Patxis eta Sinsalus, eta Txiwaka eta Gofis izango dira elkarren aurka ariko direnak.

Zimiterioko XI. Pilota Txapelketa, hastear

Erredakzioa Zizurkil

Zizurkilgo Ziotza Kirol Elkartek hamaikagarren urtez Zimiterioko binakako esku pilota txapelketa antolatu du. Zizurkilgo elizari atxikita dagoen frontoi berezi horri bizia emateko sortu zen txapelketa herriko hori, eta hamai-ka urte geroago, erabat errotu dela esan daiteke. Iaz 14 bikotek hartu zuten parte.

Iritsi da aurtengorako izena emateko garaia ere. Ekainaren 16ra arte egongo da zabalik horretarako aukera. Bete beharreko baldintza bakarra esku pilotan

aritzeko gogoia izatea da. Izen emateak, bikote bakoitzeko 10 euroko balioa du, baina sariak ere ez dira nolanahikoak izango. Irabazleak, txapela, garaikurra, 100 euro eta afaria bereganatuko ditu. Azpitxapeladunak, garaikurra, 50 euro eta afaria. Hirugarren eta laugarren geratzen diren bikoteek, afari bana irabaziko dute. Lehenengo bikote zizurkildar-rrak, berriz, 30 euro eskuratuko ditu. Izena emateko zenbaki hauetara dei daiteke: 616 96 11 53 edo 649 703 472.

Beste zenbait herritan bezala, zimiterioa da jatorriz Zizurkilek

pilotan ibiltzeko zuen txokoa. Oso frontoi berezia da; alturaz baxuagoa, bost koadro besterik ez ditu, eta atzeko pareta erdiraino soilik iristen da. Alboetan bi poste dau-der gainera, pilotariaren jarduna baldintzatu dezaketenak.

Nahi duen edonork aukera pa-regabea izango du datozen aste-

tan frontoi honen xarmaz gozatzeko. Kanporaketa partidak larunbat arratsaldetan izan ohi dira eta finala berriz, ohi bezala, Zizurkilgo Amabirjin jaietan jokatu da, aurtun, abuztuaren 17an. Gauez jokatzeko finala eta jendetza hurbiltzeko da ikuskizunaz gozatzera.

Mauka
berria

Durango giroaz gozatzeko aukera bikaina!

Errota ostautua
Intxaurrondo 54
Durango 48220 BIZKAIA
Tel.: 946-21 60 21
errotas@baizabalastola.org
www.baizabalastola.org

Prezioa
55€

GAURKO ESKAINTZA

www.mauka.eu

berria
taldea

ARRIARAN
—1949—

ESTACION DE SERVICIO ARRIARAN, S.L.
LARRAMENDI, 28; 38 posta kutxa
20400 TOLOSA (GIPUZKOA)
TEL. (943) 67.48.28 - FAX. (943) 67.49.82
www.arriaran.com

AVIA

Soterramenduko obrak dirauen bitartean

ABANTAILA HOBERENETAZ BALIATU ZAITEZ!!!

TXARTELEKO DESKONTUA %50AN GEHITU

GARBI EZAZU ZURE KOTXEA DOHAIN
ARRIARAN GASOLINDEGIAN
GASOLINAZ HORNITUZ GERO

*OHARRA: Informa zaitzetez promozio honetaz Arriaran gasolindegian.

Hizkuntza, kantua eta ahotsa uztartzen dituen talde berria sortu dute Iruran

Hiahoka taldeak kultura eta jatorri ezberdinetako jendea bilduko du, asteartero euskara praktikatzeko asmoz

Mikel Iraola Irura

Hiahoka. Horixe da Iruran euskara praktikatzen nahi dutenentzat sortu berri den ekimenaren izena. Hizkuntza, ahotsa eta kantua uztartzen ditu talde berriak, hortik bere izen bitxia, eta kantuak, musika eta gorputz ariketen bitartez tarte atsegin eta ludiko bat pasatzeko helburua du.

Euskara praktikatu nahi duen pertsona ororentzat zuzendutako taldea da Hiahoka. Baina batez ere beste jatorri eta kultura ezberdinetako lagunuen elkargune izan nahi du, estilo ezberdinetako musika eta kantuak ezagutu eta konpartitu ahal izateko, eta eskaldun zahar eta berriak elkar ezagutzeko.

Petra Elser euskara dinamizatzaileak gidatuko ditu saioak, Julian Cobzaru soinu-jolea errumaniarraren laguntzaz. Saio horietan, euskal kantu tradizional eta modernoak landuko dira, eta euskaraz hitz egin eta gorputza mugitzeko aukera izango da.



Petra Elser eta Julian Cobzaru soinu-jolea, aurreko saloetako batean. HITZA

Horretarako, ondo kantatzen jakitea eta euskara maila jakin bat izatea beharrezkoak ez direla azaldu dute antolatzaileek. «Ondo pasatzeko gogoia besterik ez da behar, kantuen bitartez norberak bere ahotsa ezagutzeko, lagun berriak egiteko eta jolasean euskara praktikatzeko».

Pasa den asteartean egin zuten lehen saioa, eta hemendik aurrera asteartero biltzeko asmoa daukate liburutegi zaharreko gurasoen gelan (elizaren atzealdeko parkearen ondoan dagoena) 18:00etatik 19:00etara. Saioak dohakoak izango dira, eta nahi duenak nahi duenean parte hartu ahal izango du.

Informazio gehiagorako, Irurako Euskara zerbitzuan galdetu dezakete, edo astearte eta ostegunetan 943 691 333 telefonora deitu dezakete.

Euskal Festak

Bestalde, gaur euskal festen barnean pintxo-potea egingo da zazpietatik aurrera. Bihar, berriaz, euskal produktuez osatutako bazkari-herrikoia egingo da. Igandean, dantzari txiki eguna ospatuko da eta artisau eta janari azoka egongo da.

Oria eta Araxes ibaiak garbitzen ari dira

Datorren astera arte Tolosako Santa Maria eliza eta Lizartza arteko fallopia japonica delako landarea moztuko dute

M. Iraola Ikaztegieta

Atzo hasi zituzten Oria eta Araxes ibaietako espezie inbaditzaileak mozteko lanak, Tolosaldeko Aste Berdearen barruan.

Ikaztegieta ekin zioten lanari, eta datorren asten astera arte ari-tuko dira beharrean. Helburua, Tolosako Santa Maria elizara arte dagoen fallopia japonica izeneko landare inbaditzaileak mozteko da.

Araxesen, berriaz, Tolosa eta Lizartza artean ibiliko dira lanean.

Tolosaldea Garatzenen laguntzaz, martxoan jarri zuten abian proiektu hau, eta Tolosaldeko habitat naturalaren errehabilitazio ekologikoa eta errehabilitazioa aurrera eramatea dira helburu nagusiak.

Gaur, Alegian

Bestalde, gaur, arratsaldeko laue-tatik aurrera, Alegiako udaletxe aurrean erreka garbitzeko auzolan deialdia egin du udalak. Urgardeneko boluntarioak eta Alegiako ikasleak elkarlanean ari-tuko dira garbiketa lanetan Tolosaldeko Aste Berdearen barruan.

● tolosaldean@hitza.info



Atzo hasi zituzten ikaztegieta espezie inbaditzaileak mozteko lanak. HITZA

Irudia > Ibarra



KULTUR LANTEGIKO ARTELANAK IKUSGAI

Ekainaren 21era bitarte, aurtengo ikasturtean zehar kultur lan-tegieta aritu diren ikasleen artelanak ikusteko aukera izango da kultur etxean antolatutako den erakusketan. Bertan, egur tailan, pinturan, al-

tzarien errehabilitazioan, eskulanetan edota ehozi-rietan egindako lanak ikusi ahal izango dira. Erakusketaren ordutegia, 10:30etatik 13:00era, eta 16:00etatik 20:30era bitartekoa izango da. HITZA

Irudia > Zizurkil



USOAK ASKATU DITUZTE

Matia Fundazioaren Fraisoro Zentroko pertsona nagusiek usozale-tasun jarduera batean parte hartu dute, hauek hazi eta trebatzen ibili dira gero mezulari gisa erabili ahal izateko. 88 laguneko zahartze akti-boa sustatzeko modua da. Atzo uso hauek aske utzi zituzten. HITZA



Zizurkilgo Huyck Wangner-eko langileak, atzo Donostiako gizarte arloko epaitegian. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Helduen zentroetako gatazka gizarteratu nahi du LABek

Patronalei herrialdeko lan hitzarmenaren gaineko akordiora iristeko eskatuz mozioak aurkeztu ditu

I. Terradillos

LAB sindikatuak autonomiarik ez duten adineko pertsonen zaintzarako egoitza eta eguneko zentroetako langileen lan hitzarmenaren negoziazioen gatazka «langileen borroka izatetik, sozializatu eta gizarteratu gatazka» izatea nahi du. Hori dela eta, Gipuzkoa osoko udaletan mozioak sartzen ari dira, udalen babesa jasotzeko.

Mozioez gain, elkarretaratzeak ari dira egiten, atzo Tolosako Uzturre zentroaren aurrealdean egin zuten moduan. Zentroetako langileen lan hitzarmenaren negoziazioa «blokeatuta» dagoela gogoratu dute, eta zerbitzuak duen izaera publikoagatik erakundeek duten erantzukizun zuzena dela eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak proposamena egin duela egoera desblokeatzeko

azaldu dute. «Proposamenak sektore honetako langileen aldarrikapen historikoak diren lan baldintzen hobekuntzarako neurriak jasotzen ditu, baita inposatutako Lan Erreforma Laboralaren ondorio negatiboak eragozteko eta zerbitzuaren kalitatea hobetuko luketen neurriak ere; eta honekin batera, patronalei proposamena aurrera eramanez ahal izateko beharrezko diru hornidura bermatzen die», adierazi du LABek.

Enpresa askok Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako proposamena aurreakordio moduan sinatua dute, Tolosako lurreamendiko zentroko Zu eta Biok enpresa, kasu. Hain zuzen ere, sindikatuak argi du hori dela herrialdeko hitzarmena lortzeko bidea. Hala, Adegia eta Laresi dei egiten diete «euren interes propioak» alde batera utzi, eta mahai negoziatzailean eseri daitezela, «herrialdeko hitzarmen duin eta posible bat sinatzera».

Tolosaldeari dagokionez, Uzturre zentroa litzateke lan hitzarmenik sinatua ez duen zentro bakarra.

• tolosaldean@hitza.info



LABek deituta, elkarretaratzea egin zuten atzo, Uzturre zentroan. M. IRAOLA

Grebara deitu dituzte metalgintza alorreko langileak datorren astean

Adostasunik lortu ez dutenez, ELAk alde batetik, eta LABek, CCOOk eta UGTk bestetik deitu dituzte

Iñigo Terradillos

Gipuzkoan hiru greba egun egingo dituzte datorren astean metalgintza alorreko lantegietan. Bi taldetan banaturik egingo dute presioa sindikatuak metalgintzako lan itunak berritzeko. Alde batetik, ELA dago, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako metalgintzako sindikaturik indartsuena. Hiru lurralde horietan bost eguneko lanuztera deitu ditu datorren asterako langileak, baina soilik gutxieneko edukiak bermatzen dituen itun bat indarrean ez duten enpresetako langileak. Metalgintzako langile guztiei dei egin diete, berriz, LABek, CCOOk eta UGTk. Gipuzkoan 17an, 19an eta 21ean egin nahi dute greba.

Astelehenean erregistratu zuten grebarako deialdia ELAk, baina lau sindikatuak ez ziren ados jarri mobilizazio bateratuak antolatzeke. Gainerako hiru sindikatuak egutegi bateratua hitzartu dute. Desadostasun handiak daude bi blokeen artean: ELAk batik bat enpresako itunak bultzatzen ditu, uste baitu horiek direla Espainiako Gobernuaren lan erreformaren aurrean babes handiena eman dezaketenak. LABek, CCOOk eta UGTk, berriz, uste dute oraindik badagoela langileak lurraldeko hitzarmen bidez babesteko modua.

Peroteko langileak auzitegian
Bestalde, Zizurkilgo Huyck Wangner lantegiko kaleratutako beharginak Donostiako gizarte arloko epaitegiaren aurrean elkartu ziren herenegun. Bertan, kaleratzeen aurkako banakako helegiteak aurkeztu zituzten. Pasa den hilean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian jarri zuten Huyck

Wangnerreko zuzendaritzak 74 langileak kaleratzeko erregulazio dosierraren aurkako helegitea. Dosierraren aurkako epaiketaz uztailaren 9an abiatuko da, eta legeak dioen moduan, hura amaitzean hasiko lirateke banakako salaketekin.

Mikel Zabaleta ELAko ordezkariak azaldu duenez, zuzendari-tzari eskaria egin diete langileek beste behin: «gatazka hau konpontzeko epaitegia ez da bidea, eta mahaian eseri daitezela eta bi aldeek artean irtenbidea bilatu dezatela eskatzen diegu». Bestalde, erakunde publikoentzat ere luzatu du mezua Zabaletak: «Huyck Wangnerreko zuzendaritza lan erreformaz baliatzen ari da era merkean deslokalizazioa burutzeko; horrek aurrekaria sor dezake beste enpresetan, eta esku hartu dezatela eskatzen diegu».

Bitartean, Huyck Wangner lantegiko beharginak mobilizazioekin jarraituko dute, eta larunbatero elkartuko dira Trianguloan, 11:00etatik 11:30era.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarritako
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leizaldea: 687 410 118. leizaldean@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leizaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzea, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

GAUR

DEIALDIAK

- **Ibarra.** Ibarrako Gazte Festei hasiera emango diete, txupina-zoarekin, 19:01ekin. Ondoren, joaldunak izango dira. 19:29ean, sagardo dastaketa izango da plazan. 20:59ean, Barrikotea gaztetxean eta 22:32an, kontzertuak plazan: BC Bombs, Erasoka eta Alerta Gorria. Gai-zaldera arte, gaztetxean, DJ Bull.
- **Irura.** Euskal Jaien barruan, pintxo potea egingo dute herriko tabernetan zehar, 19:00etatik 21:00ak bitarte.
- **Tolosa.** *Inopias antzezlan* eskainiko du kultur etxeko antzerki tallerreko Tic-Tac taldeak, 20:30ean, Leidor aretoan.
- **Tolosa.** *Irigo Cabacas: crónica de una herida abierta* dokumentala izango da, 20:00etan, kultur etxean.
- **Tolosa.** Santa Klara Komentuan, Hodeiertz eta Oroith abesbatzen 30. urteurren kontzertua izango da, 20:00etan.

BIHAR, EKAINAK 15

DEIALDIAK

- **Ibarra.** Ibarrako Gazte Festen barruan, 11:31ean, ume jokoak plazan, Txiribituen eskutik. 16:03ean, Jon Magic magoa plazan. 17:01ean, Alurr dantza taldearen emanaldia, plazan. 18:04ean, Tortillada plazan. 19:02ean, poteoa elektrotxar-rangak lagunak. 20:58ean, afaria, Sendi Ekintzan, eta ondoren, emanaldia Atarrabiako

lagunen partetik. 23:03ean, Gailur eta Ai Ene taldeen kontzertua izango da.

- **Irura.** Euskal Jaien barruan, euskal produktuekin egindako herri bazkaria izango da, plazan.
- **Lizartza.** Otsolar dantza taldeak antolatuta, 11:00etatik aurrera egun osoan Erromeria Eguna ospatuko dute.
- **Leitza.** 11:00etan, Atekabeltzen: Ditzela! dinamikaren lehen batzarra egingo da. 13:00etan, plazatik hasita *Ditzela! Ez Maxurren, ez iñon!* herri manifestazioa egingo dute. 17:30ean, Atekabeltzen *Irigo Cabacas, crónica de una herida abierta* dokumentalaren proiektzioa eta ondoren eztabaida. 23:00etan, gaztetxean, Matxura taldearen kontzertua izango da.
- **Tolosa.** Musika Eskolako taldeen kontzertua, 20:00etan, Udal Musika eskolan.
- **Tolosa.** TOPAK antolatutako kontzertua, 21:00etan, Plaza Berrian.

ETZI, EKAINAK 16

DEIALDIAK

- **Ibarra.** Ibarrako Gazte Festen barruan, 10:05ean, 3x3 umeentzako txapelketa izango da plazan eta 18:03an, eskualdeko bertsolariak ariko dira, plazan.
- **Irura.** Artisanu eta janari azoka izango da 10:00etatik 14:00etara. Eta Dantzari Txikien eguna ospatuko dute Irura, Anoeta, Amasa-Villabona, Alegia eta Ibarrako dantzariak.

GAUR

- **Tolosa.** Egunkeroa eta gauekoa: Bronte, C. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.
- **Leitza.** Plaza M.T. Elbarren 36. Telefonoa: 112.

BIHAR, EKAINAK 15

- **Tolosa.** Egunkeroa eta gauekoa: Etxebeste, J.M. Gernikako arbolaren lorategiak, 3. Telefonoa: 943 65 10 40.
- **Leitza.** Plaza M.T. Elbarren 36. Telefonoa: 112.

ETZI, EKAINAK 16

- **Tolosa.** Egunkeroa eta gauekoa: Olarreaga, M. Martin J. Iracola etorbidea, 10. Telefonoa: 943 67 24 38.
- **Leitza.** Plaza M.T. Elbarren 36. Telefonoa: 112.

ETZIDAMU, EKAINAK 17

- **Tolosa.** Egunkeroa: Bengoe-txea, E Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48. Gauekoa: Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. Telefonoa: 943 65 46 10.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Zorionak Pottoli!

Dune Sarasola Balerdi (Alegia).
Ondo pasa eta muxu bat etxekoan partetik.



Urte askoan!

Nahia Dorronsoro Olamusu (Berrobi).
Gaur 8 urte! Zorionak eta ondo pasa familia guztiaren partetik!

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

● ● ● ● **agurrak**

19-90



"KONBINA-TU"

Aukeratu 2 plater eta edaria 12.90 eurotan (astelehenetik - ostegunera)



"Fast Good Food"

Betiko kutixiak, gure karta berrian

Euskal Herria plaza, 5 • TOLOSA • Tel.: 943 119 017

**Egin HITZAren
HARPIDEDUN**

ekainaren 1etik uztailaren 22ra arte,
ETA JASO:



Barrenetxe
www.barrenetxe.com

sasoiko
barazkien
otzara

Harpidedun egiten diren
guztien artean

**Orduñako Aisia
hotelean,
bi pertsonarentzako
asteburu baterako
egonaldia
ZOZKATUKO DUGU**

Harremanetarako:
902 82 02 01
harpidetza@hitza.info

hitza info